



# IBAIBE

*Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea*

Beurko muinoa z/g 48902 Barakaldo

Telefonoa / Faxe : 944 381 771

Epostak: 014067aa@hezkuntza.net ibaibehi@gmail.com

Webgunea: www.ibaibe.net

2011/12 JKASTURTEA



## FAMILIEENTZAKO INFORMAZIOA

Guraso agurgarriak:

Ikasturte honen hasieran, ikastetxeko informazio orokorra emateko, liburuxka hau luzatzen dizuegu.

Ikasle batzuk joan zaizkigu institutura. Beste berri batzuk, ordea, hamar urteko ibilbidea hasi dira gurekin. Aurten Ibaibe ikastetxean inoiz izan dugun ikasle kopururik handiena daukagu, 423 neska-mutil. Aldiz, Hezkuntza Sailak beste irakasle-lanpostu bat kendu digu, soinketakoa.

Beste alde batetik, uda honetan lan batzuk burutu ditugu ikastolan. Joan den urtean egindako kiroldegiko zorua gaizki egin zuen enpresak, asfaltatu egin du, eta orain euria dagoenean, aterpean ez daude putzurik. Udalak

ere bi lan egin ditu: Haur Hezkuntzako patioa asfaltatu eta Lehen Hezkuntzako komunak berriztu ditu. Hemendik eskertu nahi dugu udal-aparejadoreen lana. Ikastetxeak kortxo eta kolunpio berriak ipini ditu.

Gogoratu nahi dizuegu, bi era desberdin dituzuela zuen iritziak plazaratzeko, eta eskolako martxa hobetu ahal izateko. Bata, tutore edo Zuzendaritza taldearekin komentatuz. Bestea, Guraso Elkartearen bidez. Eskerrik asko.

O.O.G.	2
Langilegoa	3
Hezkuntza egitasmoa	4
Euskara bultzatzeko	5
Proiektuak	6
Kanpoko ekintzak	7
Arautegia eta ohiturak	8-9
Jantokia	10
Egutegia	12



# Ordezkapen Organo Gorena

Ikastetxeko parte hartzeko organoa, non eskola komunitate osoa (irakasleak, familiak, ikasleak, udal erakundeak) ordezkaturata baitago. Gutxienez hiru hilabetean behin bildu behar da, edo deialdi berezian zuzendariak ala partaideen herenak deituta.

Haien betekizunen artean:

- ✕ Ikastetxearen funtzionamendu orokorra aztertu eta baloratu, ikasketei zein elkarbizitzari dagokionez.
- ✕ Proiektu eta araudiak gainditu eta ebaluatu.
- ✕ Komunitatearen funtzionamendu egokirako neurriak eta ekimenak proposatu.
- ✕ Helburu hezitzaile zein kulturalen bidean laguntzeko ildoak markatu.
- ✕ Instalazioen zainketa zein berriztapenak sustatu.

## GURASOAK

Alfredo Rafael  
Javier Gomez  
Iñaki Etura  
Iratxe Lanzagorta  
Lourdes Muñoz  
Itziar Ordóñez  
Ana Taboada  
Kepa Criado  
Sira Alves  
Eider Menendez  
Patxi Carrasco  
Yolanda Gonzalez  
Luis M<sup>a</sup> Ruiz  
Ana Silva  
Itziar Garciandia

## IRAKASLEAK

*Presidentea:*  
Iñaki Gomez  
*Idazkaria:*  
Ana Rosa Rodriguez  
*Ikasketa-burua*  
Begoña Monje

*Irakasleak*  
Marivi Bañales  
Arantza Altube  
Marian Taboada  
M<sup>a</sup> Reina Diez  
Marisol Dolado  
Begoña Temez  
Belen Gonzalez  
Pili Basauri  
Pili Sanchez

## UDALETXEA

Juan Jose Gutierrez

## EZ IRAKASLEAK

Jose Merino

# Langilegoa

HAUR HEZKUNTZA	A	B
2 URTE	Maitane Martell Yolanda Antonio Fatima Benitez	Idoia Bañales Iñaki Lariz Maribel Claver
3 URTE	Pili Paramo	Inma Barga
4 URTE	Arantza Altube	Auxi Ibañez
5 URTE	Marisol Dolado	Inma Velez
LEHEN HEZKUNTZA	A	B
1. MAILA	Belen Irastorza	Marian Taboada
2. MAILA	Garbiñe Perea	Begoña Temez
3. MAILA	Begoña Ballester	M <sup>a</sup> Reina Diez
4. MAILA	Begoña Dueñas	Iria Castaño
5. MAILA	Lourdes Ciriza	Txaro Martin
6. MAILA	Dolores Ruiz	Montse Ibáñez De Gauna
GORPUTZ HEZIKETA	Bego Torres	Ibone Calzada
INGELESA	Pili Sanchez	Lander Zamakona
MUSIKA	Estibaliz Ruiz	
P.T. / AHOLKULARIA / HB ES-PEZIALISTAK	Pilar Basauri Nagore Puente	Belen Gonzalez Inma Garcia
ZUZENDARIA	Iñaki Gomez	JANTOKIKO
IKASKETA BURUA	Begoña Monje	ARDURADUNA
IDAZKARIA-A.K.A.	Ana Rosa Rodriguez	Marivi Bañales
ATEZAINAK	Aitor Arriola / Jose Merino / Jorge Garcia	
JANTOKIKO LANGILEAK	M <sup>a</sup> Mar, Txaro, Tina, Itziar, Fatima, Arantza, Rakel, Maribel, Aitziber, Iratxe, Gorka, Xabi, Itxaso, Amaia, Irene, Eguzkiñe, Maitane, Lourdes, Zuriñe, Sonia, Monika, Ainhoa, Ariane, Aiala.	
GARBITZAILEAK	Montse, Matxalen, Txaro, M <sup>a</sup> Jesús, Nieves, Antonio.	

# Hezkuntza egitasmoa

---

- ✕ Inguru eta eskola-elkarteko kide guztien arteko elkarbizitzarako, errespetu, elkartasuna eta elkarkidetza baloreak garatzea.
- ✕ Eskola-gunean zein kanpoko erakundeekiko harremanetan euskararen erabilpena bultzatzea.
- ✕ Neskek eta mutilek, pertsonak bezala egokiro garatzeko behar duten ziurtasuna, egonkortasuna eta orekadun eskola-esparru kohezitzailea ematea. Emakumearen egungo diskriminazioa kontuan izango da, aipatutako egoera gainditzeko eskola-elkarteko kide guztiek zainketa iraunkorra izanik.
- ✕ Ikastetxe barruan zein kanpoan, komuneko materialen mantenu eta erabilpen egokia bultzatzea.
- ✕ Ingurugiroarekiko errespetua, hala nola hau mantentzeko eta hobetzeko lankidetza garatzea.



# Euskara bultzatzeko

---

Helburu hau lortzeko zuzendutako ekintza gehienak eskolan bertan egiten badira ere, euskaldun giroa mantendu eta hobetzeko gurasook ere laguntza handia eman dezakezuelakoan gaude. Horren ondorioz, aholku batzuk ematea onuragarri izan daitekeela uste dugu.

- Garrantzitsua da **zuen euskararekiko jarrera positiboa izatea**. Zuen seme-alaben motibazioa hobea izango da baldin eta zuengan aldeko jarrera ikusten badute.
- Haurrak euskaraz mintzatzen direnean, **anima itzazue**. Gurasoen hitz goxoak baitira umeentzako laudoriorik onena. Sarri eta bihotzez, egiten ari garen lanari buruzko hitz goxo eta positiboak azaldu.
- Bereziki **zoriondu** eta indartu umeak ondorengo egoeretan euskaraz hitz egiten dutenean: **kalean jolasten, eskolako joan-etorrietan, etxean anai-arreben artean,**
- Umeak hurbildu euskararen mundura. Gaur egun aukera handiak daude: **EITBko** programak ikusi eta entzun, **euskarazko komikiak eta liburuak** oparitu, **euskararen aldeko ekintzetan** parte hartu, ...
- Eskolaz kanpoko ekintzetan **euskararen erabilpena eskatu**. Garrantzitsua da euskara jolaserako ere erabiltzea, ez soilik ikasteko.
- Eskolan giro euskalduna lortzen saiatzen gara denon artean. **Ez hurbildu, beraz, ikasgelako ateraino erdaraz,** eta ez ibili pasabideetan barrena ozenki hitz eginez.
- Zuetariko askok eta askok, inoiz, euskara ikasi duzue edo ikasten ari zarete. **Erabil ezazue dakizuena** zuen seme-alabekin, hori ere motibagarria baita. Laguntzaren bat behar baduzue (hiztegia, esamolderen bat, ...), jo ezazue eskolako irakasleengan.
- Garaiz zaudete euskarari bai esateko! **Oraindik ere ikas dezakezue** eta eskolan bertan aukera daukazue, umeen ordutegia kontuan hartuta.



# Proiektuak

---

## **1. Hizkuntz Normalkuntza Proiektua**

Euskara normalizatzea da helburua. Hau da, eskola eta bere inguruko eremu guztietan erdarak bete ohi dituen funtzio berberak euskarak bete ditzan ahalbideratzea.

## **2. Ingelesa 4-12 urteetan**

4 urtetatik hasten gara hizkuntza hori lantzen. 6. mailan, bost eguneko barnetegira doaz ingelesa praktikatzera.

## **3. Ikas-komunitateak**

Laugarren urtea izango da hau proiektu honekin. Talde elkarreragileak, elkarbizitza-egitasmoa eta solasaldi literarioak dira puntu aipagarrienak.

## **4. Agenda 21 / Baratza**

Birziklatzeko ohiturak eta ingurugiro-oreka mantentzeko aholkuak maila guztietan lantzen dira. Haur Hezkuntzako 5 urtekoek baratzean lan egiten dute.



## **5. Irratia eskolan**

Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 6. maila arte ikasgela guztietan burutzen dute. Astero, klase batek bost irratsaio emititzen du ikastetxe osorako. Mintzamena lantzen dute egoera zuzen batean.

## **6. Eskola 2.0**


5. eta 6. mailako ikasle bakoitzak bere eramangarria dauka eta arlo desberdinak ikasteko erabiltzen dituzte. Haur Hezkuntzatik, hiru urteekin trebatzen hasten dira informatika tekniketan, 10 urte dituztenean autonomoak izan daitezzen ordenadoreen maneian.

*Proiektu guzti hauen informazio gehiago, webgunean daukazue: [www.ibaibe.net](http://www.ibaibe.net)*

# Eskolaz kanpoko ekintzak

---

**GEko ordutegia: Astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 17:30etara**  
***ampaigeibaibe@yahoo.es***



Urrian hasten dira Guraso Elkarteak antolatutako eskolaz kanpoko ekintzak. Ondorengo ekintza hauekin eskolako heziketa-eskaintza zabaldu egiten dugu,

**Psikomotrizitatea      Margolaritza      Euskal dantzak**

**Futbola                      Antzerkia                      Kirolanitza**

**Taekwondoa      Saskibaloia      Ingelesez jolastu                      Eskulanak**

## **KIROLA ESKOLAN**

Kirol jarduerak (eskolakoa zein eskolaz kanpokoa) helburu hezitzailea du eta pertsonari, kirolaren bidez, osaketa integrala emateko bide izan nahi du. Hona hemen umeak kirolaz goza daitezen geure aldetik bete beharreko jarrerak:

- ✕ Umeak interesaturik badaude, kirola egitera animatu baina jolastu nahi ez badu, ez behartu.
- ✕ Egiozu kasu umearen ahalegin eta jokaerari, ez emaitzari. Horrek, umea laguntzen du bere abileziaren arabera helburu errealistak edukitzeko orduan, garaipenaren garrantzia murriztu delarik.
- ✕ Animatu umeak beti arauen arabera jolastera.
- ✕ Huts egiteagatik edo partidua galtzeagatik inoiz ez barregarri utzi umea ezta errieta egin.
- ✕ Gogora ezazu umeak ez duela zure gozamenerako jolasten baizik eta bere gozamenerako.
- ✕ Umeek adibideen bidez hobeto ikasten dutela gogoratu. Txalotu bi taldeen jokoak.
- ✕ Arbitroaren iritziarekin ados ez bazaude, dagozkion bideetatik kexatu, haren erabakiak eta zuzentasuna jendaurrean zalantzan ipini barik. Arbitro gehienek beren astia eta ahaleginak gure umeen alde ematen dituztela kontuan hartu.
- ✕ Ahozko gehiegikeriak zein fisikoak ekiditeko ahaleginen alde egin.
- Kontuan hartu entrenatzaile boluntarioen garrantzia, beren astia eta baliabideak dibertimenduzko ekintzetan ematen baitituzte eta gure laguntza merezi dute.



## **SARRERAK ETA IRTEERAK**

### Haur Hezkuntza

9:05etan 2 urtekoak lagunduta sartuko dira Haur Hezkuntzako atetik. Gero, ate nagusitik, atezaintza ondokotik, 9:10tik 9:45era. 12:50an irtengo dira HHko atetik. Arratsaldean, berriz, 16:20an irtengo dira ate nagusitik. 3, 4 eta 5 urtekoak Haur Hezkuntzako atetik sartuko dira beraiek bakarrik. Arazo larri bat sortuz gero, soilik, sartuko dira lagunduta. Irteerak 13:00 eta 16:30 izango dira Haur Hezkuntzako atetik.

### Lehen Hezkuntza

9:00etan, atek zabalduko dira sartzeko eta irteteko ordua baino 5 minutu lehenago eta 5 minutu beranduago itxi. Sarrera uneetan umeak bakarrik sartuko dira. Sarrera zein irteera beheko patioko ate bietatik izango dira. Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren umeak ate nagusitik irtengo dira, eta 15:00etan hortik ere sartuko dira.

### GARRANTZITSUA:

Umeen gurasoak ezin zarete klasetara igo 9:00etan. Irakasleari zerbait komentatu nahi badiozue, idatziz eman umearekin edo zuzendaritzatik pasa zaitezke.

- ✘ Huts egite eta puntualtasuna tutorearen aurrean justifikatu behar dira. Ikastorduetan, ikastetxera sar edo ikastetxetik irten dadin agiria, tutore, atezain edo zuzendaritzan aurkeztu behar da.
- ✘ Umeak ez-ohiko orduetan hartu edo ekartzeko patio orduak aprobetxatzeko gomendatzen dizuegu. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, 11:00tik 11:30etara.
- ✘ Klase orduetan eta 16:30tik aurrera ezin da pasabide edo geletan egon.
- ✘ Irakasleekin hitz egiteko egunak eta orduak, ostegunak dira 13:00tik 13:30ra.
- ✘ Ikastetxearen barruti osoan, patioak barne, EZIN DA ERRE, ETA EZIN DA ANIMALIARIK SARTU.
- ✘ Eskola orduetan umeren batek botika hartu beharko balu, pediateraren agiria ekarri beharko luke, dosia eta ordua argi azalduta.
- ✘ 16:30tik aurrera eskolan gelditzen zaretenok, jakin ezazue beheko patioko komuna zabalik dagoela. EZIN DA TXIZA EGIN PATIOETAN ETA BELARDIETAN ERE.
- ✘ Irteeraren bat antolatzen bada eskolatik kanpo, gurasoen edo tutorearen BAIMENA ekarri behar da egun bat lehenago.
- ✘ Kexak, iradokizunak edo arazoak sortzen direnean eman beharreko pausuak:  
1. Tutore edo inplikaturak dagoen irakaslearengana jo. 2. Zuzendariarengana. 3. Beharrezkoa ikusiz gero, Ordezkaritza Organo Gorenera eraman.
- ✘ Eskolako materiala apurtzen bada txarto erabiltzeagatik, ikasleak ordaindu beharko du.

# Kontutan izatekoak

Eskolako ikasle guztien onerako eta kutsadura ekiditeko, datozen sintomak agertzen direnean, ikaslea ezin izango dela eskolara etorri gogoratzen dizuegu:

**Sukarra**

**Beherakoa**

**Aho infekzioak**

**Konjuntibitisa**

**Zorriak**

**Zizareak**

Era berean, medikuak aholkatuko dizue gaixotasun hauentzako bajaldiak:

**Eskarlatina**

**Hazikurriak**

**Hepatitisa**

**Errubeola**



Eskolan zein etxeetan lortu beharreko ohiturak:

Pertsonekin errespetua

Elkartasuna.

Puntueltasuna.

Egunero zerbait irakurtzea.

Telebista gehiegi ez ikustea.

Ikasteko behar duen materialaz arduratzea.

Ingurugiroa zaintzea eta ez erasotzea.

Lan teknikak lantzea: azpimarratzea, eskemak eta laburpenak egin.

Gorputzaren garbitasuna eta zainketa.

Arauk errespetatzea eta ikastolako materialen zainketa.

# Jantokia

## **JANTOKIKO HELBURUAK**

1. Jantokia esparru hezitzaile bezala kontsideratu.
2. Jantoki orduan erabiltzen diren esparru guztietan euskara erabilpen maila igotzea
3. Astialdiaren antolamendua hobetzea: Haur Hezkuntzako umeei babes gehiago ematea, kirol-guneak, liburutegia, informatika gela, diskoteka, ludotekan...
4. Euri egunetan, bitartekoak ipini umeak busti ez daitezten: pelikulak, jokoak babeslekuetan,..., arreta berezia jarriz txikienekin (HH-koak eta LH 1. ziklokoak).



### ✕ **Jantokiaren ordutegia**

**13:00etatik 15:00etara** izango da, umeei 2 txandatan jango dutelarik:

**1. Txandan**, 2 eta 3 urte eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako A ikasgelakoek.

**2. Txandan**, B ikasgeletakoek, 1.A eta 3.A 14:00etan hasiko dira.

### **GURASOENTZAKO INFORMAZIOA**

Ikasturte hasieran gurasoei informatzen zaie, zirkularren bidez, jantokiko antolamenduaz, prezioak eta Eusko Jaurlaritzak bidaltzen dituen hainbat arauari buruz. Informazio guztia helarazteko bi bide erabiltzen dira: umeei banatzen zaizkien oharren bidez eta asanblada egiten.

IRAILA	56 €
URRIA	92 €
AZAROA	84 €
ABENDUA	44 €
URTARRILA	68 €
OTSAILA	76 €
MARTXOA	88 €
APIRILA	40 €
MAIATZA	88 €
EKAINA	64 €


# JANTOKIA

- Begirale eta sukaldeko langileak, Enpresa Gastronomikoak (aurten EUREST enpresak) kontrataturik daude, eta honek, ikasleei medikazioa ematea debekatzen die.
- Ume batek menu berezia beharko balu, gaurkotutako mediku-ziurtagiria aurkeztuta baino ez litzaioke emango.



## JANTOKI BATZORDEA

Jantoki-zerbitzuaren kudeaketarako batzordea bi gurasok, zuzendariak eta jantokiko arduradunak osatuko dute.



- Zuen seme-alabak eskolatik ateratzen badituzue medikuarenera joateko, ezin izango dira bueltatu jantokira hau hasi eta gero.
- Jantokia bi eratan erabili ahal izango da: ohiko eta ez-ohiko bazkideak, Eusko Jaurlaritzak ezartzen duenaren arabera.



Jantokiaren funtzioak hezigarria izan behar du, beraz, ikasleek ezarritako arauak errespetatu behar dituzte, funtzio hau ahal den hoberen betetzeko.

Jantokiko arduraduna **Marivi Bañales** da.

Beraiekin hitz egiteko edozein egunetan egin dezakezue, **9:00etatik**

**9:30etara** eta **14:30etatik 15:00etara**, bisita zehaztu ondoren.

Horretarako **944 381 771** telefonora deitu. Zenbaki bera erabil dezakezue edozein

# Curso / Ikasturtea 2011-12

Hezkuntza Sailak eta OOG-K onartuta 2011-VI-8  
Aprobado por el OMR y Educación GV

Iraila Septiembre							Urtia Octubre							Azaroa Noviembre						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4						1	2		1	2	3	4	5	6
5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30				
							31													
Abendua Diciembre							Urtarrila Enero							Otsaila Febrero						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4							1			1	2	3	4	5
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	27	28	29				
							30	31												
Martxoa Marzo							Apirila Abril							Maiatza Mayo						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4							1		1	2	3	4	5	6
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			
							30													
Ekaina Junio							Klaseak / Horario clase      Jantokia / Comedor													
A	A	A	O	O	L	I	9:00-13:00 / 15:00-16:30							13:00-15:00						
			1	2	3		9:00-13:00							13:00-15:00						
4	5	6	7	8	9	10	<b>Jai eguna / Festivo</b>													
11	12	13	14	15	16	17	Abenduak 22 <i>Diciembre</i>							HH / <i>Infantil</i> :13:00-15:00						
18	19	20	21	22	23	24	HH 9:00-13:00													
25	26	27	28	29	30		LH 9:00-15:00 GUP/PIN													
							Inauteri-jaiak Otsailak 17							14:00-15:00						
							<i>Carnaval 17 Febrero</i>													
							9:00-14:00													
							<b>15</b> Ekainak 15 <i>junio</i>													
							Azken txangoa / <i>Excursión fin de curso</i>													
							HH: 9:00 / 15:00 <i>Infantil</i>													
							LH: 9:00 / 16:30 <i>Primaria</i>													